—Gazta, nolakoak nahi duzu, fuertea ala suabea?		—La ensalada especial de la casa está compuesta de lechuga, gulas, queso, palmitos y atún.
		—La carne ¿cómo la quieren, muy hecha, poco hecha o cómo?
		—El queso ¿cómo lo quiere, fuerte o suave?

05. JANARIA ZERBITZATU

a) GOSARI GARAIAN

—(Kafe) kafeinagabea nolakoa nahi duzu? Makinakoa ala sobreakoa?

—Ebakia eta hutsa dira hauek. Jateko ezer nahi al duzue?

—Gozagarriak otarretxo honetan daukazue: azukrea eta sakarina. Hartu nahi duzuna.

—Egun on. Kafearekin laranja-zukua ere hartuko al duzu?

—Eta kafesnearekin, zer nahi duzu jateko: kruasana ala txigorkia marmeladarekin?

05. SIRVIENDO LA COMIDA

a) A LA HORA DEL DESAYUNO

—El (café) descafeinado, ¿lo quiere de máquina o de sobre?

—Aquí tienen el cortado y el solo. ¿Desean algo para comer?

—En esta cesta tienen los edulcorantes (azúcar y sacarina). Coja lo que necesite.

—Buenos días. ¿Tomará también zumo de naranja con el café?

—¿Qué va a tomar con el café con leche: un cruasán o una tostada con mermelada?

b) TABERNAN, EDARIAK, PINTXOAK

—Kaña ala zurittoa eskatu didazu?

—Eskatutako zuritoetatik, zenbat nahi dituzu gaseosarekin?

—Hau ardo ondua da, hau erreserba, eta hau, berriz, urteko ardoa.

—Ez, ezin dizut zerbitzatu, debekatuta baitauek 18 urtez beherakoei edari alkoholunak saltzea.

—Pintxo berorik nahi duzue? Nahi al duzu pintxoak berotzea?

—Hartu platera. Zeuk hartu pintxoak.

—Zenbat jarriko dizkizuet?

—Pintxo hauek egin berri-berriak dira; horiek, lehentxeagoak dituzu.

b) EN EL BAR, BEBIDAS, PINCHOS

—¿Me ha pedido caña o zurito?

—De los zuritos que me ha pedido, ¿cuántos son con gaseosa?

—Este es el crianza, este es reserva y este otro, el vino del año.

—No, no le puedo servir, tenemos prohibida la venta de bebidas alcohólicas a menores de 18 años.

—¿Quieren algún pincho caliente? ¿Quiere que le caliente la banderilla?

—Tome un plato. Coja usted mismo los pinchos.

—¿Cuántos les pongo?

—Estos pinchos acaban de salir de la cocina, esos otros en cambio son de hace un rato.

—Tortilletan aukera handia daukagu: urdaiazpikoa, txorizoa, antxoak, barrengorriak,...	—Tenemos gran variedad de tortillas: de jamón, de chorizo, de anchoas, de champiñones, etc.
—Ur minerala, nolakoa nahi duzu? Naturala ala hotza? Gasduna ala gasgabea?	—El agua mineral ¿cómo la quiere, natural o fría? ¿Con gas o sin gas?
—Basorik behar al duzu irabiatua garagardoa sagardoa sangria. edateko?	—¿Quiere vaso para beber el batido? la cerveza? la sidra? la sangría?
—Zenbat edalontzi behar dituzue ura edateko?	—¿Cuántos vasos necesitan para beber el agua?
—Izotz-koskorrik nahi al duzu freskagarriarentzat? Pare bat nahikoa duzu?	—¿Desea hielo para el refresco? ¿Cuántos cubitos quiere? ¿Le bastan con un par?

c) TABERNAN,
OGITARTEKOAK

c) EN EL BAR,
BOCADILLOS

—Ez, ez daukagu ogitarteko berorik. Sukaldea itxita dago jadanik. Nahi izanez gero,	urdaiazpiko gazta txorizo	ogitarteko bat jarriko dizut.
—No, no tenemos bocadillos calientes. La cocina está cerrada ya. Si quiere, le puedo poner un bocadillo de		jamón. queso. chorizo.
—Bai, zer ogitarteko nahi zenituzke? Zuk nahi duzuna prestatuko dizugu		solomoa. gazta. hirugiharra. tortilla. urdaiazpikoa. solomoa piperrekin. gazta urdaiazpikoarekin.
—Muy bien, ¿qué bocadillos desea? Le podemos preparar lo que usted quiera		lomo. queso. bacon. tortilla. jamón. lomo con pimientos. jamón y queso.

—Zenbat baso behar dituzue sagardo-botilarekin?	—¿Cuántos vasos quieren con la botella de sidra?
—Bai, hau patata-tortilla da; beste hau, antxoazkoa eta hori, berriz, urdaizapikozkoa.	—Sí, este es el de tortilla de patatas; este de anchoa y ese, en cambio, de tortilla de jamón.

d)
JATETXEAN,
OTORDUA
BITARTEAN

d)
EN EL RESTAURANTE,
A LA HORA DE
COMER / CENAR

—Kontu izan platerarekin, erre egiten du, oso beroa dago-eta.	—Tenga cuidado con el plato, que quema. Está muy caliente.
—Nork behar zituen olio eta ospina entsalada maneatzeko?	—¿Quién necesitaba las vinagreras para aliñar la ensalada?
—Hementxe dituzue sarrerak. lehen platera. arraina. haragia. oilaskoa. gazta. postrea. izozkiak. ardoak. sagardoa. ura.	—Aquí tienen los entrantes. el primer plato. el pescado. la carne. el pollo. el queso. los postres. los helados. el vino. la sidra. el agua.
—On egin diezazuela. —On degizuela. —On egin.	—Que (les) aproveche.

06. PROTESTA EGIN

—Bai, oraintxe dator zuk eskatutako	pintxoa. errazioa/anoa. ogitartekoa.
—Zer, ez al zegoen ona	legatza? xerra? urdaiazpikoa?
—Nahi al duzu beste zerbaiz ekartzea?	
—Barkatu, oraintxe ekarriko dizkizut txotxak.	
—Bai, barkatu oraintxe egingo dizuet kasu	
—Bai, barkatu oraintxe naiz zuekin.	
—Zer, musika ozenegi dagoela iruditzen al zaizue?	
—Prezioen zerrenda nahi al duzu?	
—Tori, hementxe daukazu erreklamazio-orria, zuk eskatu bezala.	
—Ez, kontua ondo dago. Berrikusi dugu, eta zenbatekoa zuzena da. Garestiegia iruditzen al zaizue?	
—Ez, ez dago nahasketarik. Hauek ardoak dira, eta beste hau, berriz, postreen prezioa da.	

06. LA CLIENTELA PROTESTA

—Sí, ahora mismo viene (le traigo) (sale)	el pincho la ración el bocadillo	que ha pedido.
—¿Qué, no estaba buena	la merluza? el filete? el jamón?	
—¿Quiere que le traiga alguna cosa más?		
—Perdone, ahora mismo le traigo los palillos.		
—Un momento, ahora mismo les hago caso.		
—Perdone, enseguida vengo.		
—¿Les parece que la música está demasiado alta?		
—¿Desea la lista de precios?		
—Tenga, aquí tiene la hoja de reclamaciones, como me ha pedido.		
—No, la cuenta está bien. La hemos revisado y el importe es correcto. ¿Les parece demasiado caro?		
—No, no hay ninguna confusión. Estos son los vinos, y este es el precio de los postres.		

07. SUKALDARIA ZORIONDU

—Esango diot sukaldariari prestatutako paella asko gustatu zaizuela.	
—Mila esker —Eskerrik asko —Esker anitz	sukaldariaren partetik.
—Pozten nau jandakoa gustatu zaizuela ikusteak.	

07. FELICITACIONES AL COCINERO O COCINERA

—Enseguida le digo a la cocinera que la paella les ha encantado.	
—Muchas gracias —Muy agradecido —Mil gracias	de parte del cocinero.
—Me alegro de ver que la comida les ha gustado.	

08. NON DAGO KOMUNA?

—Bai, hortik joan eta ezkerretara, lehenengo atean daukazu komuna.

—Beheko solairuan dago komuna.

—Bai, baina har ezazu giltza, emakumezkoen komuna itxita dago-eta.

08. ¿DÓNDE ESTÁ EL SERVICIO?

—Sí, yendo por ahí a la izquierda, la primera puerta.

—El servicio está en el piso de abajo.

—Sí, pero coja la llave, porque el servicio de señoras está cerrado.

09. KONTUA ESKATU

—Txartelarekin ordaindu nahi duzu?

—Bai, noski. Txartelarekin ordaindu dezakezu. Zure nortasun-agiria erakutsiko didazu mesedez?

—Sinatuko duzu hemen, arren?

—Kontu bananduak nahi al dituzue?

—Mila esker, oraintxe ekarriko dizut kanbioa.

09. LA CUENTA, POR FAVOR

—¿Desea usted pagar con tarjeta?

—Cómo no, claro que puede pagar con tarjeta. ¿Puede enseñarme el DNI por favor?

—¿Podría firmar ahí, si es tan amable?

—¿Quieren cuentas separadas?

—Muchas gracias, ahora le traigo los cambios.

10. EGOERA BEREZIAK

—Barkatu, oraintxe ekarriko dizut orban-kentzekoa, arropan egin dizudan mantxa kentzeko.

—Zer nahi duzu, piztea?
telebista itzaltzea?
katea aldatzea?

—Sentitzen dut, baina debekatuta dago jantokian kartetan aritzea.

—Bai, oraintxe emango dizkizut kartak eta tapetea. Tantoak behar al dituzue?

—Barkatuko didazue, baina debekatuta dago jatetxearen barruan kantatzea.

10. SITUACIONES ESPECIALES

—Perdone, enseguida le traigo el quitamanchas, para que se limpie esa mancha que le he hecho en la ropa.

—¿Qué encienda el
desea, que apague el
cambie el televisor?
canal del

—No, lo siento, está prohibido jugar a las cartas en el comedor.

—Sí, ahora mismo le doy las cartas y el tapete. ¿Necesitan tantos?

—Lo siento, pero está prohibido cantar dentro del restaurante.

SALTEGIAK**ESTABLECIMIENTOS**

01. Janari-dendan	01. En la tienda de alimentación
a) Harrera orokorra	a) Acogida general
b) Harategian	b) En la carnicería
c) Arrandegian	c) En la pescadería
d) Esnekietan	d) En los lácteos
e) Fruta-dendan	e) En la frutería
f) Barazkietan	f) En la tienda de verduras
g) Okindegian	g) En la panadería
02. Estankoan	02. En el estanco
03. Burdindegian	03. En la ferretería
04. Loradendan	04. En la floristería
05. Argazki-dendan	05. En la tienda de fotos
06. Erloju-dendan. Bitxi-dendan	06. En la relojería. En la joyería
07. Garbitegian. Tindategian	07. En la lavandería. En la tintorería
08. Liburu-dendan. Paper-dendan	08. En la librería. En la papelería
09. Musika-dendan	09. En la tienda de música
10. Mertzarian	10. En la mercería
11. Optikan	11. En la óptica
12. Botikan	12. En la farmacia
13. Ile-apaindegian	13. En la peluquería
a) Gizonezkoena	a) De hombres
b) Emakumezkoena	b) De mujeres
14. Lurrindegian. Drogerian	14. En la perfumería. En la droguería
15. Arropa-dendan	15. En la tienda de ropa
16. Zapata-dendan	16. En la zapatería
17. Telefonía mugikorreko dendan	17. En la tienda de telefonía móvil
18. Informatika-dendan	18. En la tienda de informática
19. Etxetresna elektrikoek dendan	19. En la tienda de electrodomésticos
20. Kutxa erregistratzailean	20. En la caja registradora
21. Informazio-zerbitzuan	21. En el servicio de información

01. JANARI-DENDAN

a)

HARRERA OROKORRA

- Egun on. Zer nahi duzu?
- Arratsalde on. Zertan laguntzea nahi duzu?
- Arratsalde on. Zertan lagunduko dizut?
- Besterik behar duzu?
- Beste ezer behar duzu?
- Horrela ondo dago, ala pixka bat kenduko dizut?
- Nor / Zein da hurrengoa?

01. EN LA TIENDA DE ALIMENTACIÓN

a)

ACOGIDA EN GENERAL

- Buenos días, ¿qué desea?
- Buenas tardes, ¿en qué puedo ayudarle?
- ¿Necesita algo más?
- ¿Está bien así o le quito un poco?
- ¿Quién es el siguiente?
- ¿A quién le toca ahora?

b)

HARATEGIAN

- Txuletak, nolakoak nahi dituzu? Gaztearenak ala zaharrenak?
- Zenbat urdaiazpiko moztuko dizut?
- Nahikoa duzu hau, edo gehiago moztuko dizut?
- Oilaskoaren barrukiak nahi al dituzu?
- Txorizoa, nolakoa nahi duzu? Gozoa ala mina? Pamplona txorizoa ala Salamancakoa?
- Tripaki hauek bertan eginak dira. Zenbat jarriko dizut?
- Oilasko-bularkiak osorik behar dituzu, ala xerrak ateratzea nahi duzu?

b)

EN LA CARNICERÍA

- Las chuletas, ¿cómo las quiere, de ternera o de vaca?
- ¿Cuánto jamón le corto?
- ¿Es suficiente así, o le corto más?
- ¿Quiere los despojos del pollo?
- ¿Prefiere chorizo dulce o picante? ¿Lo quiere de Pamplona o de Salamanca?
- Los callos son caseros. ¿Cuánto le pongo?
- Las pechugas de pollo, ¿las necesita enteras o le saco filetes?

c)
ARRANDEGIAN

—Nola moztuko dizut legatza,	trontzatan? xerratan? solomotan?
—Nahi al duzu txitxarroa garbitzea? Burua erabiliko al duzu ezertarako?	
—Ez, gaur ez daukagu	antxoarik. legatzik. zaporik.

c)
EN LA PESCADERÍA

—¿Cómo le corto la merluza,	en rodajas? en filetes? en lomos?
—¿Quiere que le limpie el chicharro? ¿Utilizará para algo la cabeza?	
—No, hoy no tenemos	anchoas. merluza. rape.

—Zenbat kilo	legatz erreboilo bisigu	behar dituzu?
—¿Cuántos kilos de	merluza rodaballo besugo	necesita?

—Oso antxoa ederrak dauzkagu gaur. Eta modu onean, gainera.	—Hoy tenemos anchoa, muy buena. Y a muy buen precio además.
---	---

d)
ESNEKIETAN

—Esnea, nolako nahi duzu? Osoa, gaingabetua ala erdigaingabetua?
—Ez, lasai, esnearen iraugipen-data datorren asteartekoa da-eta.
—Bai, ardi-gazten artean hau nahiko suabea da. Dastatu nahi al duzu pixka bat?
—Umeentzat baldin bada, Burgosko gazta gomendatzen dizut. Menbrilloarekin oso goxoa izaten da.
—Jogurt naturalak ala frutadunak, nolakoak behar dituzu?

d)
EN LOS LÁCTEOS

—La leche ¿cómo la quiere: entera, desnatada o semidesnatada?
—Tranquilo, que la fecha de caducidad de la leche es del martes que viene.
—Sí, este queso de oveja es bastante suave. ¿Quiere usted probar un poco?
—Si es para los críos, le recomiendo este queso de Burgos. Queda muy rico con membrillo.
—Los yogures ¿los quiere naturales o de sabor a frutas?

e)
FRUTA-DENDAN

—Ez, oraindik ez daukagu	meloirik. gerezirik. aranik.
—Oraindik ez da garaia.	
—Bai. Mahatsa oraintxe dago puntu-puntuan. Zuria ala beltza nahiago duzu? Zenbat jarriko dituz?	
—Gerezi hauek Ezpeletakoak dira.	
—Noski, fruta hau urte-sasoikoa da.	
—Horiek inportaziokoak dituzu.	
—Hemen dena bertakoa daukagu.	

e)
EN LA FRUTERÍA

—No, todavía no tenemos	melones. cerezas. ciruelas.
—Todavía no es la época.	
—Efectivamente, la uva está en su punto. ¿Prefiere la uva blanca o la negra? ¿Cuánto le pongo?	
—Estas cerezas son de Espeleta.	
—Por supuesto, esta fruta es de temporada.	
—Esas son de importación.	
—Aquí todo es del país.	

f)
BARAZKIETAN

—Bai, noski, tomatea bertakoa da, inguruko baserri batekoa. Eta oso modu onean daukat, gainera.
—Azenarioak, nolakoak nahi dituzu? Solteak ala poltsakoak?
—Zenbat leka nahi duzu, hiru kilolaurden?
—Tomate hauek transgenikoak dira.
—Letxuga hauek ekologikoak dira.

f)
EN LA TIENDA DE VERDURAS

—Sí, por supuesto, el tomate es del país, de un caserío muy cerca de aquí. Y está a muy buen precio además.
—Las zanahorias, ¿las prefiere por unidades o de bolsa?
—¿Cuántas vainas quiere, tres cuartos de kilo?
—Estos tomates son transgénicos.
—Estas lechugas son ecológicas.

g)
OKINDEGIAN

—Zein ogi duzu nahiago: barra luzea, osoko ogia, baguettea, txapata edo baserriko ogia (ogi biribila)?
--

g)
EN LA PANADERÍA

—¿Qué clase de pan prefiere: barra larga, integral, baguette, chapata o quiere un pan rústico (hogaza)?

—Ez, moldeko ogia agortu egin zaigu. Bihar ekarriko digute gehiago.	—Lo siento, el pan de molde se nos ha acabado. Mañana tendremos más.
—Hurrengo labealdia ordubete barru-edo izango da.	—La siguiente hornada será dentro de una hora más o menos.
—Beraz, pastelak enkargatu nahi dituzu iganderako? Zenbat nahi dituzu?	—Así pues, ¿quiere usted encargar pasteles para el domingo? ¿Cuántos quiere?
—Pastak, nolakoak nahi dituzu? Denetatik jarriko al dizkizut, nahasian?	—¿Cómo desea usted las pastas? ¿Quiere que le ponga surtido, un poco de todo?

02. ESTANKOAN

02. EN EL ESTANCO

—Tabako beltza ala gorria nahi duzu?	—¿Quiere tabaco negro o rubio?
—Pipako tabakoan, zein klasetakoa gustatzen zaizu? Marka jakinik nahi duzu?	—Del tabaco de pipa, ¿qué clase prefiere? ¿Tiene alguna marca preferida?
—Zein biltzeko tabako-klase nahiago duzu?	—¿Qué clase de tabaco de liar prefiere usted?
—Bai, zenbat zigarro puru nahi dituzu? Kaxak 12koak dira.	—Sí, ¿cuántos puros quiere usted? Las cajas son de 12 puros.
—Bai, metxeroak kargatzen ditugu. Bestela, (metxero-)kargatzaile hau eros dezakezu.	—Sí, por supuesto que cargamos mecheros. Pero si no, puede comprar este cargador (de mecheros).
—Ez, hemen ez dugu horrelako inprimakirik saltzen.	—No, aquí no vendemos ese tipo de impresos.
—Norako nahi dituzu posta-zigiluak?	—¿Para dónde quiere usted los sellos de correos?
—Gutuna atzerrira bidali behar baduzu, zigilua 35 zentimokoa da; bestela, berriz, 26 zentimokoa.	—Si va a enviar la carta al extranjero el sello es de 35 céntimos; para el resto, en cambio, de 26 céntimos.
—Bai, larruzko petaka hau aukera ona izan daiteke zure lagunari opari polit bat egiteko.	—Sí, esta petaca de cuero puede ser muy adecuada para hacer un regalo a su amigo.

03. BURDINDEGIAN

03. EN LA FERRETERÍA

—Bai, oraintxe egingo dizut giltza horren kopira bat.	—Sí, enseguida le hago una copia de la llave.
—Ez, sentitzen dut, baina horrelako segurtasun-giltzen kopiarik ez dugu egiten hemen. Horretarako, eliza ondoko dendara joan beharko duzu.	—No, lo siento, pero aquí no hacemos copias de llaves de seguridad como esa. Para eso, debe de ir usted al establecimiento que está junto a la iglesia.
—Zein neurritako puntapaxak tirafonfoak zirrindolak torlojuak iltzeak nahi dituzu?	—¿De qué medida quiere las puntas de París? los tirafondos? las arandelas? los tornillos? los clavos?
—Behar izanez gero, bainurako kako-klase hauek ditugu: itsasgarriak eta iltzatzekoak. Nolakoak nahiago dituzu?	—Tenemos diferentes clases de colgadores para el baño: adhesivos o para clavar en la pared. ¿De cuáles prefiere?
—Zartagina normala ala itsasgaitz horietakoa nahi duzu?	—La sartén, ¿la quiere normal o la prefiere antiadherente?
—Barkatu, ez dizut ondo aditu. Zenbat metro korda behar dituzula esan duzu?	—Lo siento, no le he entendido bien. ¿Cuántos metros de cuerda ha dicho que necesita?
—Bai, noski, badauzkagu giltza ingelesak. Baina zer neurritakoak behar dituzu: 8, 10, 12 edo 15ekoak?	—Por supuesto que tenemos llaves inglesas. Pero ¿de qué medida las quiere: de 8, de 10, de 12 o de 15?
—(Nik) uste dut zuk nahi duzun lan horretarako zerra zirkularrak direla egokienak.	—Yo creo que para ese tipo de trabajo las sierras circulares son las más adecuadas.
—Zertarako behar duzu zerra, egurra mozteko ala metala mozteko?	—¿Para qué quiere Ud. la sierra, para cortar madera o para cortar metal?
—Mailu hauek oso merke daukazu. 16 nahiz 26 mm-koak dira, eta heldulekia zurezkoa dute.	—Estos martillos están muy bien de precio: tienen mango de madera, y son de 16 o de 26 mm.
—Hemen daukazu hainbat puntako bihurkin horrentzat. Zeintzuk behar dituzu?	—Aquí tiene puntales para ese destornillador. ¿Cuáles de estos necesita Ud.?

04. LORADENDAN

04. EN LA FLORISTERÍA

—Zer asmo duzu? Lore-sorta bat oparitzea? Ala landare bat nahiago duzu? Edo mahaiardiko polit bat aukeratuko bazenu?

—¿Qué idea tiene usted, regalarle un ramo de flores, o prefiere tal vez una planta? ¿Y qué tal si eligiera un bonito centro de mesa?

—Bai, (nik) uste dut kasu honetan

krabelinak
arrosak
tulipak
bioletak
bitxiloreak

oso egokiak izan daitezkeela.

—Sí, yo creo que en este caso

los claveles
las rosas
los tulipanes
las violetas
las margaritas

pueden ser muy adecuados.

—Bietatik nahasian jarriko dizkizut? Horrela, dozena eta erdiko sorta osatu arte?

—¿Le pongo de las dos clases mezcladas? ¿Así, hasta completar docena y media?

—Nora bidali behar dira loreak?

—¿A dónde hay que enviar las flores?

—Zerbait idatzi nahi duzu txartelean?

—¿Quiere usted escribir algo en la tarjeta?

—Enkargatu didazun koroarekin batera, zerbait grabatu nahi duzu zintan?

—¿Qué inscripción desea grabar en la cinta que lleva la corona?

—Lurra bi hilabete barru aldatzea komeni da. Bestela, ihartzeko arriskua dago. Astean behin ureztatzea nahikoa da.

—Conviene cambiar la tierra a los dos meses, porque de lo contrario la planta se secará. Con regarla una vez a la semana es suficiente.

—Ongarri hori oso ona duzu. Eramango al duzu?

—Ese abono es muy bueno. ¿Se lo va a llevar usted?

05. ARGAZKI-DENDAN

05. EN LA TIENDA DE FOTOS

—Noizko nahi zenuke inprimatzea argazki digital hau?	—¿Para cuándo querría que le imprimáramos esta foto digital?
—Presakako tarifa normalarena baino garestiagoa da.	—La tarifa urgente es más cara que la tarifa normal.
—Zenbat kopia nahi dituzu bakoitzetik?	—¿Cuántas copias quiere de cada una?
—Nortasun-agiria ateratzeko nahi al dituzu zure argazkiak?	—¿Las fotos son para el documento nacional de identidad?
—Zer neurritakoak egin nahi dituzu argazkien handipenak? Badakizu, zenbat eta gehiago handitu, orduan eta bereizmen gehiago galtzen du argazkiak.	—¿De qué tamaño quiere usted las ampliaciones de las fotos? Ya sabe, cuanto más se amplía una foto más definición pierde.
—CD honetako argazkietatik, zenbaten kopiak nahi dituzu paperean? Zenbat ale bakoitzetik?	—De las fotos de este CD, ¿de cuántas quiere copia en papel? ¿Cuántas copias de cada una?
—Oraintxe aterako dizuet ezkontzaren erreportajea. Ea gustatzen zaizuen.	—Ahora mismo les saco el reportaje de la boda. A ver si les gusta.
—Bai, argazki-album hau orri osagarriekin osa dezakezu gero.	—Sí, después puede usted completar el álbum de fotos con más hojas.
—Marko-aukera handia daukagu: metalikoak, kristalezkoak..., hainbat forma eta tamainatakoak.	—Tenemos una gran variedad de marcos: metálicos, de cristal, etc. de varias formas y tamaños.
—Argazki-kamera digital honekin, formatu panoramikoan atera ditzakezu argazkiak.	—Con esta cámara de fotos digital puedes sacar sus fotos en formato panorámico.
—Bideokamera honek bi zoom mota dauzka, handipen diferentekoak: digitala bata eta optikoa bestea.	—Esta videocámara tiene dos tipos de zoom, de aumento diferente: uno digital y otro óptico.

06. ERLOJU-DENDAN. BITXI-DENDAN

—Zenbat diru gastatu nahi zenuke erlojuan, gutxi gorabehera?

—Erloju digitala nahi duzu, ala erloju analogikoa?

—Umeentzako hauek oso egokiak dituzue, uretan arazorik gabe sartzeko modua izango dute-eta.

—Zer gertatzen zaio erlojuari?

—Tailerrean konpontzen saiatuko gara, baina agian fabrikatzaileari bidali beharko diogu. Zure izena emango didazu? Eta telefono-zenbakia?

—Hamar bat egun barru etorri ea konponduta dagoen ikustera.

06. EN LA RELOJERÍA. EN LA JOYERÍA

—¿Cuánto dinero quiere Ud. gastarse en el reloj, más o menos?

—¿Quiere usted un reloj digital o lo prefiere analógico?

—Estos modelos son muy adecuados para los críos, porque pueden bañarse con ellos sin ningún problema.

—¿Qué le pasa al reloj?

—Bueno, procuraremos arreglarlo en el taller, pero tal vez tendremos que enviárselo al fabricante. ¿Me podría dar su nombre? ¿Y el n° de teléfono, por favor?

—Venga Ud. dentro de unos diez días, a ver si ya está arreglado.

—Gaur egun, honelako bitxiak saltzen dira gehien:

belarritakoak.
eraztunak.
lepokoak.
eskumuturrekoak.

—Hoy en día las joyas que más se venden son de este tipo,

pendientes.
anillos.
collares.
pulseras.

—Bai, gaur egun urre zuria dago modan, eta modelo hauek dira gehien saltzen direnak.

—Actualmente está de moda el oro blanco y estos modelos son los más vendidos.

—Zein harribitxi-mota ari zara bilatzen, errubiak? esmeraldak? granateak?

—¿Qué tipo de rubís? piedra preciosa busca usted, esmeraldas? granates?

—Diamantezko eskumuturrekoa nahiko zenuke orduan? Erakutsiko dizkizut, dotoreak dituzu-eta.

—O sea que ¿desea usted una pulsera de diamantes? Enseguida se las enseño, las hay preciosas.

—Bai, zer nahi duzu grabatzea eraztun horretan?

—Dígame, ¿qué desea usted que grabemos en ese anillo?

—Zer-nolako iratzargailua nahi duzu? Nolako alarma-hotsa izatea nahi duzu? Edo irratiarekin esnatzea nahiago duzu?

—¿Qué tipo de despertador quiere? ¿Qué sonido de alarma quiere? ¿O prefiere despertarse con la radio?

07. GARBITEGIAN. TINDATEGIAN

07. EN LA LAVANDERÍA. EN LA TINTORERÍA

—Pare bat egun barru jaso ahal izango duzu/dituzu garbitzeko ekarri duzun/dituzun

soinekoa
jaka
galtzak
gabardina

baina horretarako ordeztagiria aurkeztu/erakutsi beharko duzu.

—En un par de días podrá recoger

el vestido
la chaqueta
los pantalones
la gabardina

que ha traído usted a lavar, pero para eso deberá presentar el resguardo.

—Jakina, larruzko jaka hori ere garbituko dizugu.

—Por supuesto, también le lavaremos esa chaqueta de cuero.

—Noizko nahi zenituzke gortinak eta alfonbrak? Ondo da, egun horretarako prest izango dituzu.

—¿Para cuándo querría usted las cortinas y las alfombras? Está bien, las tendrá preparadas para ese día.

—Zer koloretan nahi duzu tindatzea arropa hau?

—¿De qué color quiere que le tiñamos esta ropa?

—Egon lasai. Lehen jaunartzeko soineko hau goitik behera lisatu, eta garaiz prestatuko dizugu.

—No tenga cuidado, le plancharemos el vestido de 1ª comunión y lo tendrá listo para el día adecuado.

—Zuk ekarritako edredoi hau lauzpabost egun barru edukiko duzu garbituta. 26 euro kostatuko zaizu.

—La limpieza del edredón que ha traído tardará 4 o 5 días, y le costará 26 euros.

08. LIBURU-DENDAN. PAPER-DENDAN

08. EN LA LIBRERÍA. EN LA PAPELERÍA

—Zer-nolako liburu nahi duzu opari hori egiteko?

—¿Qué tipo de libro quiere usted regalar?

—Zer-nolako liburuak irakurtzea gustatzen zaio?

misteriozkoak?
zientzia-fikziozkoak?
maitasunezkoak?
best-seller horietakoak?
edo nolakoak?

—¿Qué clase de libros le gusta leer?

¿de misterio?
¿de ciencia-ficción?
¿románticas?
¿best-seller?
¿de qué otro tipo?

—(Nik) uste dut sail honetakoak asko gustatuko zaizkizula.

—Yo creo que los libros de esta sección le gustarán mucho.

—Ez, liburu hori ez daukagu, baina nahi baduzu, biltegira eskatu, eta pare bat egun barru hementxe izango duzu.

—No, en este momento no disponemos de ese libro, pero si Ud. quiere se lo pediremos al almacén y lo tendremos en un par de días.

—Ez, zuk aipatutako titulu hori katalogoz kanpo dago. Zaila izango duzu liburu-denda batean aurkitzea. Liburu zaharren azoka batean saiatu beharko duzu.

—No, ese título que me dice está descatalogado. Será difícil que encuentre ese libro en una librería normal. Tendrá que intentarlo en alguna feria del libro viejo.

—Bai, mapa-bilduma hau oso egokia da zuk nahi duzunerako.

—Sí, sí, esta colección de mapas es muy adecuada para lo que usted quiere.

—(Nik) uste dut hau dela zuk nahi duzun moduko maparik onena.

—Sí, yo creo que este es el mejor mapa para lo que usted quiere.

—Ez, herrialde horretako errepide-maparik ez daukagu orain dendan.

—No, en este momento no tenemos ningún mapa de carreteras de ese país.

—Herrialde horretako mapa-aukera zabala daukagu. Begira, ikusi eta aukeratu zerorrek.

—Tenemos una amplia variedad de mapas de ese país. Mire, ojeelos y elija usted mismo.

—Zer koloretako karga nahi duzu bolaluma horrentzat: urdina ala beltza?

—¿Qué color quiere para el recambio de ese bolígrafo: azul o negro?

—Zer-nolako koaderno behar duzu,	laukiduna? espiraldun edo kiribilduna? zuloduna? mikrozulatu? edo nolakoa?	
—¿Qué tipo de cuaderno quiere usted,	cuadriculado? de espiral? perforado? microperforado? qué otro tipo?	
—Zenbat	folio gutun-azal koaderno karpeta	nahi dituzu?
—¿Cuántos	folios sobres cuadernos carpetas	quiere usted?
—Ez, ez daukagu hurrek margotu eta koloreztatzeko	ipuinik. koadernorik.	
—No, no tenemos	cuentos cuadernos	para colorear.
—Norentzat behar duzu hiztegia?	—¿Para quién quiere usted el diccionario?	
—Zein hizkuntzako hiztegia behar duzu?	euskara hutsekoa? ala euskara/gaztelania? edo euskara/frantsesa? edo euskara/ingeleza?	
—¿De cuántos idiomas quiere el diccionario?	¿solo euskera? ¿o castellano/euskera? ¿o francés/euskera? ¿o inglés /euskera?	
—Ez, sentitzen dut, ez daukagu posta-txartelik.	—No, lo siento, no tenemos postales.	

—Bai, begira, hainbat posta-txartel dauzkazu hemen. Ea zein duzun gustukoen.

—Sí, aquí tiene usted postales, écheles un vistazo, a ver cuál le gusta más.

—Bai, nolako agenda nahi duzu? Poltsan eramateko moduko txiki bat ala etxean edukitzeko beste handiago bat? Hauek oso prezio onean daude.

—Dígame, ¿qué agenda quiere usted? ¿Una de esas pequeñas, para llevar en el bolso, o una un poco mayor para tener en casa? Estas son muy baratas.

—Oparitarako biltzea nahi al duzu?

—¿Quiere que se lo envuelva para regalo?

—Paketeak biltzeko opari-papera, nolakoa behar duzu?

—El papel para regalos, ¿de qué tipo lo quiere usted?

—Bestelako apaingarririk? Zintarik edo?a

—¿Algún otro adorno? ¿Alguna cinta?

09. MUSIKA-DENDAN

09. EN LA TIENDA DE MÚSICA

—Ez, zuk eskatutako disko hori agortu egin zaigu. Datorren astean izango dugu berriro.

—No, el disco que usted me pide se ha acabado. Lo recibiremos de nuevo la semana que viene.

—Bai, euskal musika horko apal horretan daukazu.

—La música vasca la encontrará en esa estantería.

—Ez, disko hori katalogoz CD kanpo dago. DVD

—Lo siento, ese disco CD está descatalogado. DVD

—Erabili gabeko CD eta DVD hauek aproposak dira Internetetik jaitsitakoak grabatzeko.

—Estos CDs y DVDs vírgenes son muy buenas para grabar las descargas de Internet.

—Edukierari dagokionez, 700 Mb-etik hasi eta 4 Gb-era artekoak dituzu.

—En cuanto a la capacidad, las hay desde 700 Mb hasta 4 Gb.

—Zenbat sarrera nahi dituzu larunbateko musika-jaialdirako?

—¿Cuántas entradas quiere para el festival de música del sábado?

—Ez, talde horren musika ez dago binilozko diskotan, CDtan bakarrik aurkituko duzu.

—No, la música de ese grupo no está en discos de vinilo, solo se ha publicado en CDs.

10. MERTZERIAN

10. EN LA MERCERÍA

—Zer koloretako botoiak neurritako nahi formatako dituzu?	color medida forma	desea usted los botones?
—Zenbat metro zinta behar dituzu?		—¿Cuántos metros de cinta necesita?
—Kateorraz handiak nahi dituzu, edo beste txikixeago hauek?		—Los imperdibles, ¿los quiere grandes, o prefiere estos más pequeños?
—Ez, neguko arroparik pijamarik bufandarik eskularrurik		ez dugu oraindik jaso. Horiek uda amaitzean-edo izango ditugu.
—No, todavía no hemos recibido la ropa los pijamas las bufandas los guantes		de invierno. Los recibiremos al final del verano más o menos.
—Galtzerdi luze hauek oso gustukoak ditu adineko jendeak, leun-leunak direlako.		—Estos calcetines largos les gustan mucho a las personas mayores, porque son muy suaves.
—Gerrirainoko galtzerdietan aukera zabala duzu. Aterako dizkizut ikusteko.		—Tenemos una gran variedad de medias hasta la cintura. Ya se las voy a enseñar.
—Lycrazko beste horiek gomendatzen dizkizut. Egiten dituen oso fabrikatzaile ona da.		—Le recomiendo estas otras de licra. El fabricante es de toda garantía.
—Bularretakoetan eskaintza handia dugu une honetan. Bilduma heldu berria da. Ikusi:	uztaidunak. uztaigabeak. enkajedunak. betegarridunak. kirola egitekoak.	
—En este momento tenemos una gran oferta de sujetadores. La colección es actual, la acabamos de recibir	con aros. sin aros. de encaje. con relleno. deportivos.	

—Bestetik, nahi izanez gero, kulero eta bularretako joko politak ere badituzu.

—Gizonezkoen sport-galtzerdiak lau koloretan ditugu: beltzak, urdinak, grisak eta marroiak.

—Horrelaxe jarriko dizkizut, orduan: mahuka motzeko elastiko bat, mutilena; beste bat tiranteduna, gizonena; eta galtzontzilloak.

—Además, si lo desea, tiene bonitos conjuntos de braga y sujetador.

—Los calcetines de caballero los tenemos en cuatro colores: negro, azul, gris y marrón.

—De acuerdo, entonces le pongo una camiseta de niño de manga corta, una de caballero de tirantes y unos calzoncillos.

II. OPTIKAN

—Betaurreko progresiboak behar al dituzu? Ala graduatu normalak?

—Begira, hauek dira gehien saltzen diren betaurreko-modeloak. Eustoin edo armazoietan aukera handia daukazu.

—Probatu itzazu hortxe, ispiluaren aurrean, ea zer iruditzen zaizkizun.

—Bai, zure fitxa hementxe daukagu, eta horrekin betaurreko berriak berehala prestatuko dizkizugu.

—Ikusmena graduatzeko ordua ematerik nahi al duzu? Ondo al datorkizu bihar arratsaldeko bostetan?

—Ez, lasai, eguzkitako betaurreko hauek kristal polarizatuak dauzkate, eta hauekin ez duzu inolako arazorik edukiko, ezta elurretan ere.

—Eguzkitako betaurreko hauek segurtasuneko araudi guztiak betetzen dituzte. Alde horretatik, erabateko bermea ziurtatua dago.

—Zer-nolako lentillak erabiltzen dituzu: gogorrak, normalak (konbentzionalak) ala erabili eta botatzeko horietakoak?

—Lentilla horren araberako likido garbitzailea emango dizut.

—¿Necesita usted gafas progresivas? ¿O unas graduadas normales?

—Mire, estos son los modelos de gafas que más vendemos ahora. Tiene usted una gama muy grande en monturas.

—Pruébeselas ahí mismo, frente al espejo, a ver qué le parecen.

—Sí, tenemos aquí su ficha. Con ella le prepararemos enseguida unas gafas nuevas.

—¿Quiere que le dé hora para graduarse la vista? ¿Le viene bien mañana a las cinco de la tarde?

—No, tranquila, estas gafas de sol tienen cristales polarizados, y con ellas no tendrá usted ningún problema, tampoco en la nieve.

—Estas gafas de sol cumplen todas las normas de seguridad. Por esa parte, son de absoluta garantía.

—¿Qué tipo de lentillas usa usted: rígidas, normales (convencionales) o de las desechables?

—Le serviré el líquido limpiador adecuado a la lentilla.

II. EN LA ÓPTICA

12. BOTIKAN

12. EN LA FARMACIA

—Ekarri al duzu osasun-txartela errezetarekin batera?	—¿Ha traído usted la tarjeta sanitaria junto con la receta?
—Ez, sentitzen dut, medikuaren errezeta behar duzu botika hori lortu ahal izateko.	—Lo siento, para dispensarle ese medicamento necesita receta del médico.
—Zorrien kontrako tratamendua egiteko lozioa eta xanpua erosi beharko dituzu. Eta irakurri orri honetan ematen diren jarraibideak.	—Para el tratamiento de los piojos tendrá usted que comprar una loción y un champú especiales. Y leer las instrucciones de esta hoja.
—Bai, bada orrazi berezi bat buruko bartzak kentzeko.	—Sí, existe un cepillo especial para quitar las liendres de la cabeza.
—Nolako hortz-eskuila nahi duzu? Zurda gogorrak dituen ala zurda bigunekoa?	—¿Qué prefiere, un cepillo de dientes de cerdas duras, o prefiere un cepillo blando?
—Botika hau zuk eskatutako bera da, baina, generikoa denez, askoz ere merkeagoa da.	—Este fármaco es el mismo que me ha pedido usted, pero al ser un genérico es mucho más barato.
—Garrantzi handikoa da botika hau zortzi ordutik zortzi ordura hartzea, egunean 3 aldiz, eta otorduen aurretik hobe.	—Es muy importante que tome este medicamento cada ocho horas, 3 veces al día, y antes de las comidas.
—Belarriko mina kentzeko tanta hauek emango dizkizut, baina hobe duzu bihar bertan medikuarengana joan.	—Le daré estas gotas para quitarle el dolor de oído, pero lo mejor es que vaya al médico mañana mismo.
—Esparatrapu hau paperezkoa da, ez du alergiarik sortzen eta oso erraz kentzen da.	—Este esparadrapo es de papel, no produce alergia y se quita muy fácilmente.
—Egia esateko, eskumuturreko honek ez du aparteko eraginik, baina kalterik ere ez du egiten, noski.	—A decir verdad, esta pulsera no produce ningún efecto, pero, por supuesto, tampoco hace ningún mal.
—Ez, hemen ez daukagu sendabelarrik. Horretarako, denda espezializatu batera joan beharko duzu.	—Lo siento, aquí no vendemos plantas medicinales. Para eso deberá ir a algún comercio especializado.

13. ILE-APAINDEGIAN 13. EN LA PELUQUERÍA

a) GIZONEZKOENA

—Txanda itxaron beharko duzu. Hiru pertsona daukazu aurretik. Beraz, hogei bat minutu izango dira.

—Nola nahi duzu moztea ilea?

—Aurrena, burua garbituko dizut.

—Ilea labanaz moztea nahi duzu, edo makinarekin egingo dizut?

—Nahiago al duzu artaziz?

—Nahi al duzu patillak (ile-zangoak) igotzea?

—Gominarik jarriko al dizut? Espraizko honek ez du ia zikintzen.

—Zer kolonia-marka erabiltzen duzu? Lagin hauek oparitzeko dauzkat.

a) DE HOMBRES

—Tendrá usted que esperar un poco. Tiene tres por delante. Serán unos veinte minutos.

—¿Cómo quiere que le corte el pelo?

—Primero le lavaré la cabeza.

—El pelo, ¿se lo corto a navaja o con la máquina?

—¿Lo prefiere con tijera?

—¿Quiere que le suba las patillas?

—¿Le pongo gomina? Este spray apenas mancha.

—¿Qué marca de colonia usa usted? Tengo estas muestras para regalar.

b) EMAKUMEZKOENA

—Beraz, garbitu eta markatu besterik ez?

—Garbitu ondoren, maskararik edo krema hidratatzailek jartzea nahi al duzu? Orrazketak gehiago iraungo ditu.

—Nola nahi duzu kopeta-ilea uztea?

—Ilea berdintzea nahi duzu?
—Puntak

—Bai emakumea, kizkurturik oso ederki geratuko zaizu. Ala lisoa nahiago duzu?

—Beno, ile-luzapenak jartzeko beste egun baterako txanda hartu beharko duzu.

b) DE MUJERES

—O sea, ¿sólo lavar y marcar?

—Después de lavar, ¿quiere que le ponga una máscara o alguna crema hidratante? El peinado le durará más.

—¿Cómo quiere que le deje el flequillo?

—¿Quiere que le iguale el pelo?
las puntas?

—Sí mujer, el pelo rizado le quedará muy bien. ¿O lo prefiere liso?

—Bueno, para ponerse extensiones deberá coger hora para otro día.

—Orduan, zer? Ilea tindatu egingo dugu, edota ile-sortak egin besterik ez?	—Entonces ¿qué? ¿Teñir el pelo o solamente dar mechás?
—(Nik) uste dut ile-mozketa hau oso ondo doakizula zure aurpegierarekin.	—Yo creo que este corte de pelo le va muy bien a su cara.
—Nire ustez, zure aurpegierari oso ondo doakio ile-mozketa hori.	—Por los rasgos de su cara, creo que le queda muy bien ese corte de pelo.
—Aldizkariren bat, kaferik, urik edo beste zerbait nahi al duzu?	—¿Quiere alguna revista, café, agua o alguna otra cosa?
—Bost orraztalditarako bonuak baditugu. Merkexego ateratzen zaizu. Hartzea merezi du.	—Tenemos bonos para cinco peinados. Así le sale algo más barato. Creo que merece la pena.
—Beraz, ordua emango al dizut pedikura eta manikura egiteko?	—Entonces, le doy hora para hacerse la pedicura y la manicura?

14. LURRINDEGIAN. DROGERIAN

14. EN LA PERFUMERÍA. EN LA DROGUERÍA

—Bizar-aitzurrerako ordezekoak nolakoak behar dituzu? Erabili eta botatzekoak?	—¿Qué tipo de recambios quiere para la maquinilla de afeitarse? ¿De las desechables?
—Proba ezazu bizarra mozteko krema berri hau.	—Pruebe esta nueva crema de afeitarse.
—Gizonezkoek oso gustukoa dute bizarra egin ondorengo lozio hau.	—A los hombres les gusta mucho esta loción para después del afeitado.
—Eguneko krema honek oso ondo hidratatuko dizu aurpegia. Gauekoa, berriz, nutritiboa da.	—Esta crema de día le hidratará la cara. La crema de noche, en cambio, es nutritiva.

—Begira, opari moduan poltsatxo hau dugu. Barruan, lagin hauek datoz:	aurpegi-krema, zimur kontrakoa. begi ingurukoa. Gorputz-krema sendotzailea. esku-krema. ezpainetakoa.
—Mire, tenemos esta bolsita de regalo. En el interior tiene Vd. estas muestras:	crema facial antiarrugas. contorno de ojos. crema corporal reafirmante. crema de manos. lápiz de labios.

—Zure larruazal-tonurako oso makillaje polita da hori, eraman lasai.

—Este maquillaje es ideal para su tono de piel. Lléveselo tranquilamente.

—Efektu berezietarako begi-itzal hau ere jarriko dizut orduan?

—Entonces, ¿qué? ¿Le pongo también la sombra de ojos para efectos especiales?

—Eguzkitik babesteko krema zer zenbakitakoa/faktoretakoa nahi duzu? 20koa?

—¿Qué factor de protección solar quiere? ¿El número 20?

—Beltzarantzeko krema onak dituzu gaur egun.

—Hoy en día hay muy buenas cremas bronceadoras.

—Hortzetako eskuila, gogorra ala biguna nahi duzu?

—¿El cepillo de dientes, lo prefiere blando o duro?

—Ezpainetako arkatzen gama hau jarri da modan azken denboraldi honetan.

—Esta es la gama de lápices de labios que se ha puesto de moda últimamente.

—Haur-kolonia hau oso suabea da. Lurrin hau ere bai.

—Esta colonia infantil es muy suave. Y este perfume también.

—Ez, hori ez da emakume-lurrina, gizonetzko-kolonia baizik.

—No, ese no es un perfume de señora, sino una colonia de caballero.

—Komuneko papera, lixiba eta xaboia. Guztira, 4 euro eta hogeit zentimo.

—Papel higiénico, lejía y jabón. Todo por 4 euros y veinte céntimos.

15. ARROPA-DENDAN

15. EN LA TIENDA DE ROPA

—Zer alkandora-neurri erabiltzen duzu normalean? —Zer neurritako alkandora erabiltzen duzu?	—¿Qué talla de camisa utiliza usted normalmente?
—Bai, noski, zoaz probaleku horretara eta saia(tu) ezazu lasai.	—Por supuesto, vaya usted al probador y pruébeselo tranquilamente.
—Zein ehunetako galtza nahi duzu? Adineko pertsonak oso gustukoak dituzte belus ildokatuzkoak (panazkoak).	—El pantalón ¿de qué tela lo quiere usted? Las personas mayores los prefieren de pana.
